



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Prensa-oharra

Enkarterrietako Museoak umeentzako jarduera-egitarau zabalagaz hasi dau ikasturtea

- **Zabalik dago tailer eta jardueretan izena emoteko epea. Igazko ikasturtean, 443 taldetan banandutako 8.530 neska-mutiko pasau ziran bertatik, gehien-gehienak Bizkaikoak.**
- **Aurtengo nobedadea urtarrilean helduko da, Gazte Batzarra sortzen danean.**

Bilbon, 2012ko irailaren 13an.

Enkarterrietako Museoak 6 eta 16 urte bitarteko neska-mutikoei zuzendutako jarduera-egitarau zabal eta oparoa programau dau 2012/2013 ikasturterako. Abellanedako Juntetxean (Sopuerta) dagoan Bizkaiko Batzar Nagusien kultur zentroak aurrera segiduko dau gazteei eskualdeko bizimodua eta historia erakusten, erakusketako elementuen bitartez (pieza artistikoak, birsorkuntzak, maketak, planoak, argazkiak...). Informazino hori osotzeko, aro historiko bakotxaren gaineko tailer zehatzak egingo dauz (Historiaurrea, Erromanizazinoa, Erdi Aroa...), eskola-umeek jolastuz ikasi eta ikertu dagien. Barrikuntza lez, Museoa tailer bat prestatzen dabil, DBH eta Batxilergoko ikasleak batzarkide lanetan ibili daitezcan egun batez. Proiektu horren izena “Batzar gaitezen Abellanedan” da.

Enkarterrietako Museoak Lehen Hezkuntzako, DBHko eta Batxilergoko ikasleei zuzendutako jarduera didaktikoakaz segiduko dau ikasturte honetan; izan be, jarduera horreek sano harrera ona eukiten dabilz azken urteotan. Joan zan ikasturtean, batez be Bizkaikoak ziran 8.530 eskola-umek osotu eben ikasgela honeetan izena emoteko kupoa. Hain zuzen be, ikasgelok praktikaren bitartez ikasteko dagoz diseinauta. Jarduerok egin ahal izateko, Museoak Bizkaiko ikastetxe guztietara zabaldu dau izena emoteko epea. Interesatutako ikastetxeek alde zurrerako hitzordua finkatu leikie, museoko telefonoetara deituta (94 650 44 88 / 94 610 48 15) edo mezu elektronikoko bidez (enkarterrimuseoa@bizkaia.net).

Nobedadea: gazteen legebiltzarra



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

Aurtengo nobedadea da, urtarriletik aurrera, gazteen legebiltzarra ipiniko dala martxan. Museoa “Batzar gaitezen Abellanedan” izeneko tailerra prestatzen dabil, DBH eta Batxilergoko ikasleei zuzenduta. Modu horretan, Bizkaiak eta Enkarterrik menderik mende euki daben antolakuntza politiko-administratiboa emon gura da ezagutzera. Ikasleak batzarkide izango dira egun batez, eta, holan, Batzar Nagusien egitekoak eta eskumenak ezagutuko dabez.

Edozelan be, umeentzako martxan ipiniko diran lehenengo bi jarduerak Historiaurrearen eta Erdi Aroaren gaineko tailerrak izango dira; hain zuzen be, urrian hasiko dira. Historiaurreko Tailerrean, ikasleek tresnak landuko dabez, eta sua eta labar-pinturak egiten ikasiko dabe; Erdi Aroko Tailerrean, barriz, eleiza baten eraikuntzaren bitartez, arte erromanikoaren oinarritzko ezaugarriak ezagutuko dabez, eta, gainera, idazkera gotikoaren oinarrien barri eukiko dabe. Urtarrilean, “Erromatarren atzetik” Tailerrean, parte-hartzaileek erromatarren garaira arte bidaiatuko dabe denporan, eta, modu erakargarri eta esperimentalean, zibilizazio horren elementurik nabarmenenak ezagutuko dabez.

Era berean, Museoak txikiei asko gustetan jakezan beste ekimen batzuk egiten segiduko dau. “Bizi zure kontua” izeneko jardueran, ipuin herrikoi baten oinarritutako eszenografiagaz, Lehen Hezkuntzako ikasleek modu aktiboan hartuko dabe parte istorio bateko protagonista lez; bertan, gure arbasoen bizimodu landatarra zelakoa zan ikasiko dabe. “Sortu dezagun gure munstroa” ekimenari esker, txikiek gure eleiza, komentu eta baselizetako izaki fantastikoak eta munstroak ezagutuko dabez. Tradizioaren aldeko apustu honetan, ipuin-kontalariak be egongo dira, umeei ahozko istorioak transmitiduteko.

Ikasturte honetan, Enkarterrietako Museoak lankidetzan segiduko dau eskualdeko beste zentro interesgarri batzukaz. Ikasturte osoan, jarduera bateratua egingo dau El Pobaleko burdinoleagaz, eta bisita gidatuak egingo dira burdinaren mundua ezagutzera emoteko; izan be, burdina sano garrantzitsua izan da Enkarterriren garapen ekonomiko eta sozialerako. Jarduera hau izango da ordaindu beharreko bakarra, lehen aitatutako beste guztiak doakoak izango dira-eta. Halanda be, bertan parte hartzeko, aldez aurreko hitzordua eskatu beharko da.

Informazino gehiago lortzeko

Ainara Arranz. Enkarterrietako Museoko Hezkuntza eta Kultur Ekintza Sailaren arduraduna
(94 650 44 88)

Javier Barrio. Enkarterrietako Museoaren zuzendaria (Tel.: 656411760)

<http://www.enkarterrimuseoa.net/>



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
B I Z K A I A

<http://www.facebook.com/pages/MUSEO-DE-LAS-ENCARTACIONES-ENKARTERRIETAKO-MUSEOA/155376924525304>



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Nota de prensa

El Museo de las Encartaciones arranca el curso con un amplio programa de actividades infantiles

- **Abierta la inscripción para apuntarse a los diferentes talleres y actividades por los que pasaron el curso pasado 8.530 niños y niñas, divididos en 443 grupos, la inmensa mayoría de Bizkaia.**
- **La novedad de este año llegará en enero con la creación de una Junta juvenil**

Bilbao, a 13 de septiembre de 2012.

El Museo de Las Encartaciones ha programado para el curso 2012/2013 un amplio y variado programa de actividades para niños y niñas con edades comprendidas entre los 6 y los 16 años. El centro cultural de las Juntas Generales de Bizkaia, ubicado en la Casa de Juntas de Abellaneda (Sopuerta), seguirá enseñando a los más jóvenes la vida e historia de la comarca a través de elementos expositivos (piezas artísticas, recreaciones, maquetas, planos, fotografías...), información que completará nuevamente con talleres específicos sobre las diferentes etapas históricas (Prehistoria, Romanización, Edad Media ...), con el objetivo de que los escolares aprendan e investiguen jugando. Como novedad, el Museo ultima un taller para que alumnos de la ESO y Bachillerato hagan de junteros y junteras por un día en un proyecto denominado “Juntémonos en Abellaneda”.

El Museo de las Encartaciones proseguirá este curso con unas actividades didácticas para el alumnado de educación primaria, ESO y bachillerato, que están teniendo una acogida muy importante en los últimos años. En el curso pasado, un total de 8.530 escolares, la mayoría de Bizkaia, completaron el cupo de inscripciones de estas aulas que están diseñadas para aprender con la práctica. Para poder realizar estas actividades, el Museo ha abierto ya el plazo de inscripción a todos los centros educativos de Bizkaia. Los centros interesados pueden concertar ya cita previa llamando a los teléfonos del museo (94 650 44 88 / 94 610 48 15) o a través del correo electrónico (enkartermuseoa@bizkaia.net).

Novedad: el parlamento juvenil



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

La novedad de este año es la puesta en marcha, a partir de enero, de un parlamento juvenil. El Museo ultima un taller denominado “Juntémonos en Abellaneda”, dirigido al alumnado de ESO y Bachillerato, para dar a conocer la organización político-administrativa de Bizkaia y Encartaciones a lo largo de los siglos. Los alumnos y alumnas se convertirán en junteros por un día y conocerán así las funciones y competencias de las Juntas Generales.

En cualquier caso, las dos primeras actividades infantiles en ponerse en marcha serán los talleres dedicados a la Prehistoria y la Edad Media, que comenzarán en el mes de octubre. En el Taller de Prehistoria, los alumnos aprenden a tallar útiles, hacer fuego y pintura rupestre; y en el Taller de la Edad Media se instruyen sobre las características básicas del arte románico, mediante la construcción de una iglesia, y los fundamentos básicos de la escritura gótica. Ya en el mes de enero, en el Taller “Tras los Romanos”, los participantes viajarán en el tiempo hasta la época romana y de una manera atractiva y experimental conocerán los elementos más destacados de esta civilización.

Asimismo, el Museo seguirá contando con otras iniciativas muy populares entre los más pequeños. En la actividad “Vive tu cuento”, con una escenografía basada en un cuento tradicional, los alumnos de primaria participarán activamente como protagonistas de una historia en la que aprenderán la vida rural de nuestros antepasados. La iniciativa “Creando monstruos” pretende que los pequeños conozcan los seres fantásticos y monstruos que pueblan nuestras iglesias, conventos y ermitas. En esta apuesta por la tradición, se han programado también diversos cuentacuentos que transmitirán historias orales a los niños.

El museo encartado seguirá apostando durante este curso por la colaboración con otros centros de interés de la comarca. Realizará todo el curso escolar una actividad conjunta con la Ferrería de El Pobal con visitas guiadas para dar a conocer el mundo del hierro, tan importante para el desarrollo económico y social de Las Encartaciones. Esta actividad será la única actividad de pago, ya que el resto de las mencionadas anteriormente serán gratuitas, aunque para realizarlas será necesario pedir cita previa.

Más información

Ainara Arranz. Responsable del Departamento de Educación y Acción Cultural del Museo de las Encartaciones (94 650 44 88)

Javier Barrio. Director del Museo de las Encartaciones (Tfno.: 656411760)

<http://www.enkarterrimuseoa.net/>

<http://www.facebook.com/pages/MUSEO-DE-LAS-ENCARTACIONES-ENKARTERRIETAKO-MUSEOA/155376924525304>